UZTARITZEKO HERRIA

PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU VENDREDI 5 SEPTEMBRE 2025

**Le cinq septembre deux mille vingt-cinq,** à dix-neuf heures, le Conseil Municipal d'UZTARITZE, régulièrement convoqué, le vingt-neuf août deux mille vingt-cinq, s'est réuni au nombre prescrit par la loi, sous la présidence de **Monsieur Bruno CARRERE, Maire.**

2025eko IRAILAREN 5EKO HERRIKO BILTZARRAREN AKTA

**Bi mila eta hogeita bosteko irailaren bostan,** arratseko zazpitan, UZTARITZE-ko Herriko biltzarra, bi mila eta hogeita bosteko agorrilaren 5ean ohiz gomitatua, bildu da legeak manatu kopuruan, **Bruno CARRERE Jaun Auzapezaren** lehendakaritzapean.

| **Nombre de conseillers** *Kontseilari kopurua* | |
|---|---|
| **en exercice** *hautatuak* | 29 |
| **présents** *hor zirenak* | 19 |
| **procurations** *ahalordeak* | 9 |
| **votants** *bozkatu dutenak* | 28 |

Etaient présents / Hor ziren : M. CARRERE Maire / Auzapeza, Mmes, GALLOIS, SEMERENA – OLAIZOLA andereak, MM. GOYHENECHE, IBARBOURE, MAILHARRANCIN jaunak Adjoints / Axuantak, Mmes DOYHENART, ETCHEBARNE, MOUESCA, LARRIEU, SONNET-ORHATEGARAY, DO COITO SABIO (à partir de la question n°2), MM. SERRANO, ROUGET, ESTEINO, SARRATIA, DRIEUX, CENDRES, DARQUY, RUYS jaunak Conseillers municipaux / Herriko hautetsiak.

Etaient excusés / Barkatuak : Mme. CEDARRY anderea (procuration/ ahalordea à M. CARRERE jaunari), Mme MARTY-CHALEON anderea (procuration/ ahalordea à Mme. LARRIEU andereari) ; M. BLAIN jauna (procuration/ ahalordea à M. MAILHARRANCIN jaunari), Mme. ETCHEBARNE anderea (procuration/ ahalordea à M. IBARBOURE jaunari), M. SOCODIABEHERE jauna (procuration/ ahalordea à M. SERRANO jaunari), Mme MOULIA- CASABONNET jauna (procuration/ ahalordea à Mme. SEMERENA andereari), M. URRUTIA jauna (procuration/ ahalordea à M. GOYHENECHE jaunari), M. DESGROLARD jauna (procuration/ ahalordea à M. CENDRES jauanri), MME. ELIS Andera (procuration/ ahalordea à M. RUYS jaunari)

Absents / falta zirenak : Mme BONTAN anderea , Mme DO COITO-SABIO anderea (jusqu'à la question

Secrétaire de séance / Bilkurako idazkaria : M. ROUGET jauna

* APPROBATION A L'UNANIMITE DU PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU 3 JUIN 2025

* APPROBATION A L'UNANIMITE DU PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU 26 JUIN 2025

*Ensemble pour Ustaritz : Nous regrettons que les propos de Gilles Desgrolard n'aient pas été fidèlement retranscrits dans ce PV.*

*UB : l'exhaustivité des propos n'est pas reprise dans les PV mais c'est bien un résumé qui garde le sens des débats et des propos tenus en séance. Je vous rappelle que les conseils municipaux sont enregistrés et à la disposition de tous.*

* 2025EKO EKAINAREN 3KO HERRI KONTSEILUKO AKTAREN ONARPENA AHO BATEZ.

* 2025EKO EKAINAREN 3KO HERRI KONTSEILUKO AKTAREN ONARPENA AHO BATEZ .

*Ensemble pour Ustaritz: Pena iduri zaigu bilduma horretan Gilles Desgrolarden hitzak ez ontsa bilduak izatea.*

*UB: Bildumetan ez ditugu erran guziak biltzen; bildumak bilkuretako hitzen eta eztabaiden zentzua atxikitzen duten laburpenak dira. Oroitarazten dizuet herriko kontseiluak grabatuak direla eta denen eskura direla.*

NOTES EXPLICATIVES D… …O LABURPENAK

## * FINANCES – RESSOURCES HUMAINES

### 1- SEM DU GOLF MAKILA – CESSION D'UNE FRACTION MINORITAIRE DES ACTIONS COMPOSANT LE CAPITAL SOCIAL DE LA SEM PAR LA COMMUNE DE UZTARITZE

Monsieur le Maire présente le rapport suivant :

Le Golf du Makila est géré et exploité par la société d'économie mixte Golf Makila Bayonne Bassussarry Pays basque (SEM) qui est propriétaire de l'emprise foncière du Golf et des immeubles construits sur le site.

Poursuivant une démarche de valorisation et de préservation du site exceptionnel dans lequel le Golf s'inscrit, la Ville de Bayonne (actionnaire majoritaire), qui détient 58% du capital social de la SEM, a décidé de céder la totalité des actions qu'elle détient dans la SEM.

De ce fait, les autres collectivités territoriales, actionnaires minoritaires, sont tenues de céder leurs actions dans la SEM (6% du capital social au total pour 9 communes). Certains actionnaires privés minoritaires pourraient, également vouloir céder tout ou partie de leurs actions.

La Ville de Bayonne, sans y être contrainte juridiquement, a souhaité mettre en œuvre un appel à manifestation d'intérêt en vue de sélectionner un opérateur à même d'acquérir ses actions et ainsi de reprendre l'exploitation du Golf.

Par délibération du 27 janvier 2025, le Conseil municipal de Bayonne a approuvé le lancement de cet appel à manifestation d'intérêt ainsi que le règlement de la procédure et a sollicité les services d'un assistant à maîtrise d'ouvrage (AMO), le Cabinet EY, afin d'assurer l'accompagnement juridique et financier des services de la Ville de Bayonne tout au long de la procédure.

Conformément au règlement de l'appel à manifestation d'intérêt, la procédure de sélection s'est déroulée en plusieurs étapes.

La phase de sélection des candidatures a permis d'apprécier les qualités intrinsèques des candidats. A l'issue de cette analyse, deux candidats ont été admis à participer à la suite de la procédure, et à remettre des propositions détaillées initiales. Des auditions ont ensuite été menées afin de discuter avec les candidats retenus de tous les aspects de leur proposition (questions d'ordre organisationnel, technique, fonctionnel, financier, juridique et/ou administratif).

## * FINANTZAK – GIZA BALIABIDEAK

### 1- MAKILA GOLFEKO SEM SOZIETATEA – UZTARITZEKO HERRIAK SOZIETATEAREN KAPITAL SOZIALA OSATZEN DUTEN AKZIOEN GUTIENEKO ZATI BATEN UZTEA

Auzapez jaunak gaia aurkeztu du:

Makila Golfa Golf Makila Bayonne Bassussarry Pays basque ekonomia mistoko sozietateak (SEM) kudeatzen eta ustiatzen du. Sozietatea Golfeko lurren eta bertako eraikinen jabe da.

Golfeko gune paregabearen agerian emateko eta babesteko desmartxa duenez, Baionako hiriak (akziodun nagusiak), sozietatearen kapitalaren %58 baitu, sozietatean dituen akzio guzien uztea erabaki du.

Beraz, gutiengoan diren beste lurralde elkargo akziodunek ere sozietatean dituzten akzioak utzi behar dituzte (9 herriren artean, orotara, kapital sozialaren %6). Gutiengoan diren akziodun pribatu batzuk ere baliteke beren akzio guziak ala batzuk utzi nahi izatea.

Baionako hiriak, horretara legez behartua ez izanik ere, interesaren jakinarazte deialdia martxan eman nahi izan du, bere akzioak eros ditzakeen eta beraz, Golfaren ustiaketa beregain hartuko lukeen eragile baten hautatzeko.

2025eko urtarrilaren 27ko deliberamenduaren bitartez, Baionako herriko kontseiluak interesaren jakinarazte deialdiaren martxan ematea eta dagokion araudia onartu zituen, eta obragintza aholkulari bati dei egin zion, hots, EY kabineteari, prozedura osoan Baionako Hiriaren zerbitzuei aholkularitza juridikoaren eta diruzko aholkularitzaren emateko.

Interesaren jakinarazte deialdiaren araudiari jarraiki, hautaketa prozedura hainbat urratsetan iragan zen.

Lehenik, hautagaien hautatzeko fasean, hautagaien berezko kalitateak neurtu zituzten. Azterketa horren buruan, bi hautagairi prozeduraren segidan parte hartzeko baimena eman zieten; beraz, hastapeneko proposamen xeheak aurkeztu ahal izan zituzten. Ondotik, hautagaiak elkarrizketatu zituzten, hautagaiekin haien proposamenaren alderdi guzien aipatzeko (antolaketa gaiak eta ezaugarri tekniko, funtzional, diruzko, juridiko eta/edo administratiboak).

NOTES EXPLICATIVES DE SYNTHESE / ESPLIKAZIO LABURPAK

A l'issue de la phase d'audition, les candidats retenus ont été invités à remettre leur proposition détaillée finale.

Les services de la Ville de Bayonne et leur AMO ont analysé ces propositions à l'aune des critères de d'analyse figurant au sein du règlement de l'appel à manifestation d'intérêt, à savoir :

Elkarrizketa fasearen buruan, hautatu hautagaiek behin betiko proposamen xehea aurkeztu zuten.

Baionako Hiriko zerbitzuek eta obragintza aholkulariek, interes jakinarazte deialdiaren araudian agertzen diren irizpideetan oinarrituz, proposamen horiek aztertu zituzten; hots:

| Critères | Pondération |
|---|---|
| Prix d'achat des actions | 50 % |
| Modalités de financement et conditions proposées pour la Cession | 30% |
| Qualité du projet d'exploitation | 10% |
| Valeur environnementale et sociale du projet | 10% |

Au terme de cette analyse, le groupement composé de UGolf SAS et de PATRIMOINE & GOLF 3 SAS est celui qui a recueilli la meilleure note, en particulier au regard des « modalités de financement et des conditions proposées pour la cession » ; de la « qualité du projet d'exploitation » et de la « valeur environnementale et sociale du projet ». En revanche, les candidats se sont vu attribuer la même note sur le critère du « prix d'achat des actions ».

Il résulte de tout ce qui précède que la Ville de Bayonne, par délibération du 17 juillet 2025, a décidé de désigner le groupement composé de UGolf SAS et de PATRIMOINE & GOLF 3 SAS lauréat de l'appel à manifestation d'intérêt, et a donc autorisé la vente de ses actions à ce groupement.

Après en avoir longuement débattu, le Conseil Municipal à l'unanimité :

- **AUTORISE** Monsieur le Maire céder la part détenue par la Commune de Uztaritze au groupement composé de UGolf SAS et de PATRIMOINE & GOLF 3 SAS, comme le fait la Commune de Bayonne, et ce pour un montant valorisé de 686 euros.

Azterketa horren buruan, nota onena ukan zuen hautagaia UGolf SAS eta PATRIMOINE & GOLF 3 SAS egiturek osatu elkargoa izan zen, bereziki hiru irizpide hauetan: "*akzioen uzteko proposatu finantzamendu moldeak eta baldintzak*"; "*ustiaketa proiektuaren kalitatea*" eta "*proiektuaren ingurumen eta jendarte balioa*". Aldiz, "*akzioen erosketa prezioa*" irizpidean, bi hautagaiek nota bera ukan zuten.

Hori guzia dela eta, Baionako Hiriak, 2025eko uztailaren 17ko deliberamenduaren bitartez, interesaren jakinarazte deialdia UGolf SAS eta PATRIMOINE & GOLF 3 SAS egiturek osatu elkargoari esleitu zion, eta beraz, bere akzioak elkargo horri saltzea baimendu zuen.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- Auzapez jaunari Uztaritzeko herriaren partea UGolf SAS eta PATRIMOINE & GOLF 3 SAS egiturek osatu elkargoari saltzeko **BAIMENA EMATEN DU**, Baionako Hiriak egin duen bezala; orotara, salmenta 686 eurokoa izanen da.

## 2- AUTORISATION DE PROGRAMME – CREDITS DE PAIEMENT : REALISATION DE LA MEDIATHEQUE

Madame Semerena-Olaizola présente le rapport suivant :

Par délibération du 26 juin 2025, une autorisation de programme / crédits de paiement permettant d'assurer budgétairement la réalisation de la future médiathèque a été adoptée par l'assemblée

## 2- PROGAMA BATEN BAIMENTZEA – ORDAINKETA KREDITUAK: MEDIATEKAREN EGITEA

Semerena-Olaizola andereak gaia aurkeztu du:

2025eko ekainaren 26ko deliberamenduaren bitartez, organo erabakitzaileak programa baten baimentze / ordainketa kreditu prozedura onartu zuen, geroko mediatekaren egiteko. Huts bat izan zen, aipatu ordainketa kredituak ekitaldi hetsiei baitzegozkien (2022, 2023 eta 2024).

NOTES EXPLICATIVES DE SYNTHESE / ESTEKA AZALPENAK

délibérante. Les crédits de paiement indiqués portaient sur des exercices clos (2022, 2023 et 2024).

Il est précisé que les éléments donnés pour 2022, 2023 et 2024 lors du vote de cet AP/CP correspondaient aux valeurs des Comptes Administratifs de ces mêmes années.

Il convient néanmoins de rapporter la délibération n°4 du 26 juin 2025 et proposer au vote une autorisation de programme avec crédits de paiement sur les exercices 2025 -2026 -2027 uniquement.

A titre de transparence et pour information des membres du conseil municipal, les dépenses réalisées pour ce projet s'élèvent à 335 848 € TTC de 2022 à 2024 (2022 : 26 952€ TTC, 2023 : 25 323 € TTC, 2024 : 283 573 € TTC).

Le coût prévisionnel du projet est estimé à 4 364 161 € TTC et se décompose comme suit :

- Prestations intellectuelles (maitrise d'œuvre, bureaux d'études, de contrôle…) : 591 582 € TTC *(492 985 € HT)*
- Dépenses autres (assurance dommage ouvrage, publicité, assistance maitrise d'ouvrage …) : 197 015 € TTC *(164 179 € HT)*
- Travaux : 3 575 564 € TTC *(2 979 637 € HT)*

Après en avoir longuement débattu, le Conseil Municipal à l'unanimité :

- **APPROUVE** le retrait de la délibération n°4 du conseil municipal du 26 juin 2025

Après en avoir longuement débattu, le Conseil Municipal à la majorité :

- **APPROUVE** la nouvelle autorisation de programme et les crédits de paiements s'élevant à 4 028 313 € TTC sur 3 exercices pour la réalisation de la nouvelle médiathèque :

- Budget 2025: 1 652 844 € TTC
- Budget 2026: 2 075 469 € TTC
- Budget 2027: 300 000 € TTC

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : Ce que nous ne comprenons pas, c'est que nous vous l'avons signalé lors du précédent conseil et que vous n'en avez pas tenu compte.*

*<u>UB</u> : Par souci de transparence, nous avons effectivement fait apparaitre les montants des années 2022, 2023, 2024, des exercices clos et il ne fallait juste faire apparaitre l'année 2025 et les*

Ondorioz, 2025eko ekainaren 26ko deliberamendua ezeztatu behar da, eta ordaintzeko kredituekilako programa baten baimentzea bozkarazi behar da, 2025-2026-2027 ekitaldietarako soilik.

Hala ere, gardentasunari zor, herriko kontseiluek informazio guziak ukan ditzaten, proiektu horretarako izan diren gastuak, orotara 335 848 €koak dira, zergak barne (2022: 26 952€ zergak barne, 2023: 25 323 € zergak barne, 2024: 283 573 € zergak barne).

Proiektua, zergak barne, 4 364 161 € gostako dela aurreikusia da. Gastuak honela banatuko dira:

Adimen zerbitzuak (obragintza, ikerketa bulegoak, kontrol bulegoak…): 591 582 € zergak barne *(492 985 € gordin)*

- Gainerateko gastuak (kalte eta obra asurantza, publizitatea, obragintza aholkularitza…): 197 015 € zergak barne (164 179 € gordin)
- Obrak: 3 575 564 € zergak barne (2 979 637 € gordin)

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- 2025eko ekainaren 26ko herriko kontseiluaren 4. deliberamenduaren ezeztatzearen **ONARTZEN DU**;

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak, gehiengoak :

- Programa baimen berriaren eta dagozkion ordainketa kredituen **ONARTZEN DU**, mediateka berriaren egiteko, 3 ekitalditan banatuko dira

- 2025eko aurrekontua: 1 652 844 € zergak barne
- 2026ko aurrekontua: 2 075 469 € zergak barne
- 2027ko aurrekontua: 300 000 € zergak barne

*<u>Ensemble pour Ustaritz:</u> Zerbait ez dugu ulertzen: aitzineko kontseiluan jakinarazi genuen eta ez duzue kontuan hartu.*

*<u>UB:</u> Gardentasunari zor, 2022, 2023 eta 2024 ekitaldi hetsietako zenbatekoak agerrarazi ditugu, egia, 2025ekoak eta ondoko urteetakoak baizik agerrarazi behar ez zirelarik. Zehaztu nahi dugu iragan diren kredituak ez direla aldatuak izan.*

NOTES EXPLICATIVES DE SYNTHESE / ESPLIKAZIO LABURRAK

années suivantes. Nous précisons que les crédits passés n'ont pas été modifiés.

Ensemble pour Ustaritz : C'est logique quand on vote l'AP/CP qu'on ne puisse pas revenir en arrière et c'est ce qu'avait dit Gilles Desgrolard. C'est dommage que vous ne l'ayez pas entendu ? En fait, si nous n'avions pas fait de remarque, cette délibération passait crème.

UB : Dans sa prise de parole, Monsieur Desgrolard disait qu'il pensait que ce n'était pas légal et suite à votre saisine par vos soins des services de la sous-préfecture, nous sommes amenés à retirer la précédente délibération. Nous avons fait apparaitre les différentes sommes des années précédentes dans un souci de transparence.

Ensemble pour Ustaritz : C'est dommage que vous ne preniez pas en compte nos remarques. Pour vous, quand nous ne sommes pas d'accord avec vous, nous avons systématiquement tort.

UB : et réciproquement, non ?

Ensemble pour Ustaritz : à chaque fois que nous émettons une remarque sur la légalité, nous avons tort, sauf qu'ici, nous avions raison.

UB : le courrier stipule une fragilité juridique, nous souhaitons éviter que le recours gracieux ne se transforme en contentieux. Nous faisons voter exactement les mêmes sommes mais sous une forme différente.

Ensemble pour Ustaritz : au niveau des subventions, la totalité a-t-elle été perçue ?

UB : non, cela se fait au fur et à mesure de l'avancée du chantier. Par contre, nous avons reçu la notification de toutes les subventions qui sont notées sur le plan de financement sauf l'Adème qui est en cours. Nous rappelons que ces subventions sont sollicitées au niveau des travaux.

Ensemble pour Ustaritz : d'autres seront demandés ?
UB : oui, pour les collections et le mobilier.

Ensemble pour Ustaritz : Pour l'instant, il manque des subventions et nous sommes 4 000 000€, c'est bien cela. Ce qui veut dire qu'avec le mobilier et les collections, nous atteindrons les 5 000 000€. Nous sommes partis à 3 5000 000€ au départ et ce n'est pas fini. Pouvez-vous nous indiquer sur quelle base les subventions ont été demandées ?

UB : les subventions représentent 72% du coût final.

Ensemble pour Ustaritz: AP/CP bozkatzean, logikoa da ezin gibelera egin ahal izatea; hori erran zuen, hain zuzen Gilles Desgrolardek. Pena da ez baituzue entzun! Egia erran, oharrik egin ez bagenu, deliberamendu hori aise pasatuko zatekeen.

UB: Desgrolard jaunak erran zuen haren ustez ez zela legezkoa, eta zuek suprefekturako zerbitzuei dei egin ondotik, aitzineko deliberamendua kentzera eramanak gara. Aitzineko urteetako zenbatekoak gardentasuna bermatzeko agerrarazi genituen.

Ensemble pour Ustaritz: Pena da gure oharrak ez baitituzue kontuan hartzen. Zuentzat, zuekin ados ez garelarik, sistematikoki oker gara.
UB: Eta alderantziz, ez?

Ensemble pour Ustaritz: Legezkotasunaz ohar bat egiten dugun aldi guziz, oker gara; alta, kasu horretan, zuzen ginen.

UB: Gutunak legezko ahulezia aipatzen du, ez genuke nahi errekurtso adeitsua auzitegira bideratua izan dadin. Zenbateko berberak bozkarazten ditugu, forma baizik ez da aldatu.

Ensemble pour Ustaritz: Dirulaguntzei dagokienez, zenbateko osoa eskuratu ote duzue?

UB: Ez, obrak aitzinatu ahala iristen dira. Aldiz, Finantzamendu-planean idatzi dirulaguntza guzien jakinarazpenak eskuratu ditugu, Adèmerena salbu, bidean baita. Oroitarazi nahi dugu dirulaguntza horiek obretarako galdeginak direla.

Ensemble pour Ustaritz: Besterik galdeginen duzue?

UB: Bai, bildumetarako eta altzarietarako.

Ensemble pour Ustaritz: Momentuz, dirulaguntza batzuk eskas dira eta 4 000 000€ean gara, oker ez bagaude. Horrek erran nahi du altzari eta bildumekin 5 000 000€era iritsiko garela. Hastapenean 3 5000 000€ izan behar zen, eta ez da bukatu. Zehazten ahal diguzue zer oinarrirekin galdegin dituzuen dirulaguntzak?

UB: Dirulaguntzak bukaerako kostuaren %72koak dira.

Ensemble pour Ustaritz: Kontuan hartu behar da ez dugula BEZ guzia berreskuratuko. Garaian, %73.3ko dirulaguntza iragarri zenuten. Egun, %72an gara; beraz, pixka bat galdu dugu.

UB: 2 553 086€ dirulaguntza ditugu, gordin, obretarako.

NOTES EXPLICATIVES DE SYNTHESE / ESPLIKAZIO LABURRAK

*Ensemble pour Ustaritz : sachant que nous ne récupérons pas toute la TVA. Vous nous avez annoncé à l'époque 73.3% de subvention. Aujourd'hui, nous sommes à 72%, ce qui veut dire qu'on a perdu un peu.*
*UB : nous avons 2 553 086€ de subventions HT sur les travaux.*
*Ensemble pour Ustaritz : les chiffres que vous présentez sont pour certains en en HT et d'autres en TTC. En juin 2025, vous nous présentiez 4 302 000€ HT. Ce sont vos chiffres, ce ne sont pas les nôtres.*
*UB : en travaux, nous avons 3 547 622€ une fois ouverture des plis, travaux = 2 918 638€ + 627 984€ d'études. La prévision de l'architecte était de 3 500 567€. Nous avons une différence de 47 000€ entre les prévisions de l'architecte et l'ouverture des plis.*
*Ensemble pour Ustaritz : Dans votre communiqué de presse, ce qui est dit aux Uztariztar est que la Médiathèque coûte 3 900 000€. A la fin, combien coûtera -t'elle aux Uztariztar ? Si vous nous dites, elle coûtera 5 000 000€et nous avons 72% de subvention, c'est bien. Mais il me semble que les 72% sont calculés sur une base de 3 900 000€. Dans votre dossier de presse, vous mélangez également le HT et le TTC. Les Uztariztar, ce qu'ils veulent savoir, c'est le coût final.*
*UB : Attention quand on parle de 4 361 000€ TTC, on récupère la TVA soit 16.8% qui viennent diminuer le coût. C'est le HT +0.3% d'incidence de TVA qu'il faut rajouter. Nous récupèrerons en 2026 environ 280 000€ de TVA qui auront été décaissés en 2025. Au final, nous avons une différence entre les travaux et les subventions de 994 000€ auxquels il faut rajouter 0.3%de TVA.*
*Ensemble pour Ustaritz : On aura eu 2 553 686€ de subventions sur les travaux et nous en sommes à 994 000€ de différence.*
*UB : cette somme représente notre autofinancement.*
*Ensemble pour Ustaritz : Concernant le mobilier et les collections, combien de subvention sont prévues ?*
*UB : C'est une prévision, elles ont été demandées mais pas notifiées. Nous sommes autour de 160 000€. Attention, le coût englobe la médiathèque et la salle de diffusion. Salle de diffusion qui sera utilisée non pas que par les usagers de la Médiathèque mais par un bon nombre d'associations qui ont besoin de ce type de salle.*
*Ensemble pour Ustaritz : Le projet, on le connait mais on ne sait toujours pas comment il sera financé.*
*UB : Pour le moment, par notre capacité de financement. C'est un équilibre à trouver. Il y aura des conséquences positives qui découleront de ce bâtiment.*
*Ensemble pour Ustaritz : heureusement, parce qu'avec le prix que ça coûte.*
*UB : le prix, il faut le mettre en face du service rendu. Ça nous libère de l'espace et une réorganisation sera*

*Ensemble pour Ustaritz: Zenbaki batzuk gordin aurkezten dituzue, eta beste batzuk zergak barne. 2025eko ekainean, 4 302 000€ gordin aurkeztu zenuten. Zuen zenbakiak dira, ez dira gureak.*

*UB: Obretan, 3 547 622€ko heinean gara, dena barne. Hots, obrak = 2 918 638€ + 627 984€ ikerketa. Arkitektoak 3 500 567€ aurreikusi zuen. 47 000€ko tartea da arkitektoaren aurreikuspenen eta zenbateko errealaren artean.*

*Ensemble pour Ustaritz: Zuen prentsa oharrean, uztariztarrei erraten diezue Mediateka 3 900 000€ gosta dela. Ororen buru, zenbat gostako zaie uztariztarrei? Erraten duzue 5 000 000€ gostako dela eta %72ko dirulaguntzak ditugula, ongi da. Baina nik uste %72 horiek 3 900 000€ko zenbatekoan oinarrituz kalkulatuak dira. Zuen prentsa txostenean ere, zenbateko gordinak eta zergak barnekoak nahasten dituzue. Uztariztarrek jakin nahi dutena da ororen buru zenbat gostako den.*

*UB: Kasu, "4 361 000€ zergak barne" erraten dugu, baina BEZa berreskuratzen dugu; hots, %16.8, beraz kostua apalagoa da. Gehitu behar dena da gordina +0%.3 BEZ eragina. 2026an, 2025ean aterako diren 280 000€ BEZ berreskuratuko ditugu. Ororen buru, obren eta dirulaguntzen arteko tartea 994 000€koa izanen da, eta zenbateko horri %0.3 BEZ gehitu behar zaio.*

*Ensemble pour Ustaritz: Beraz, obretan 2 553 686€ko dirulaguntza ukanen dugu eta tartea 994 000€koa da.*

*UB: Zenbateko hori da gure autofinantzamenduari dagokiona.*

*Ensemble pour Ustaritz: Altzariei eta bildumei dagokienez, zenbateko dirulaguntza pentsatua da?*
*UB: Aurreikuspena da, galdegin ditugu, baina jakinarazpenik ez dugu eskuratu. Baliteke 160 000€ ingurukoa izatea. Kasu, kostuan mediateka eta hedapen gela hartu behar dira kontuan. Hedapen gela ez dute mediatekako erabiltzaileek bakarrik baliatuko, baizik eta gisa horretako gela bat behar duten elkarte anitzek.*

*Ensemble pour Ustaritz: Proiektua ezagutzen dugu, baina ez dakigu oraino nola diruztatuko den.*

*UB: Momentuz, gure finantzamendu-gaitasunari esker. Oreka atzeman behar da. Eraikin horrek ondorio baikorrak ekarriko dizkigu.*

*Ensemble pour Ustaritz : Agian, balio duena ikusirik!*
*UB: Prezioa bat da, baina eman zerbitzua ere kontuan hartu behar da, parean. Espazioa libratuko*

NOTE EXPLICATIVES DE SYNTHESE / ESPLIKAZIO LABURRAK

à engager. Après, nous vous rappelons qu'obtenir un taux de financement aussi important dans la conjoncture actuelle est une très belle opération. Beaucoup de communes voisines nous envient.

Ensemble pour Ustaritz : certaines subventions ont été réorientées comme les 30 000€ de l'agglomération.

UB : C'est un fond de concours, que nous pouvons utiliser pour n'importe quel projet.

Ensemble pour Ustaritz : La culture est mise à mal et nous en sommes conscients mais vous faites ça comme Bayonne et Saint pierre d'Irube. Il y avait à l'époque des subventions à gogo. Vous avez saisi l'opportunité sauf que derrière, il y a un reste à charge et un cout important pour la commune et nous n'avons pas pléthore d'argent. C'est cela que nous critiquons. Quand on est à la tête d'une commune, c'est faire des choix parce que les budgets ne sont pas extensibles. Vous avez fait un choix d'avoir un coût exorbitant pour la commune d'Ustaritz de plus d'un million d'euros pour la médiathèque. Nous sommes donc obligés de délaisser autre chose.

UB : nous avons la volonté de faire accéder l'ensemble des enfants et jeunes d'Ustaritz à la culture.

Ensemble pour Ustaritz : Il nous semble quand même qu'il y a déjà une médiathèque ?

UB : Règlementairement, elle est trop petite, elle est sous-dimensionnée par rapport à la population.

Ensemble pour Ustaritz : L'avantage de faire commencer un conseil municipal à 18 heures, c'est de voir le nombre et l'affluence énormes qu'il y a un vendredi soir à la Bibliothèque. C'est vrai que les gens se marchent dessus.

UB : Là, c'est de la mauvaise foi, les chiffres ont explosés. Tu viens un mercredi ou un samedi matin, c'est rempli.

Ensemble pour Ustaritz : c'est de la justification, Bayonne a fait la même chose.

UB : les chiffres de fréquentation de la Médiathèque font que c'est un vrai besoin. Vous considérez qu'il n'y a pas de monde, nous vous affirmons le contraire. Vous en faites une règle générale.

Ensemble pour Ustaritz : nous sommes déjà venus d'autres jours à 18 heures et on ne se marchait pas dessus non plus. Tant mieux, s'il y a un besoin. Il nous semble que la Médiathèque actuelle répondait aux besoins.

digu eta gauzak berrantolatuko dira. Bestalde, oroitarazi nahi dizuegu hain tasa handiko diruztapen mailaren kausitzea, egungo egoeran, zinez eragiketa ederra dela. Inguruko herri anitzek nahi lukete horrelakorik.

Ensemble pour Ustaritz: Dirulaguntza batzuk berbideratu dira; adibidez, Hirigunearen 30 000 €ak.

UB: Laguntza eskaintza da, edozein proiekturako balia dezakegu.

Ensemble pour Ustaritz: Kultura kinka larrian da, hori badakigu; baina Baiona eta Hiriburuk bezala jokatzen ari zarete. Garaian, dirulaguntzak trumilka ziren. Paradaz baliatu zarete, baina gero, zenbateko bat gure gain gelditzen da eta herriak gastu handia ukanen du; alta, ez gara hain aberats. Hori da kritikatzen duguna. Herri baten buruan garelarik, hautuak egin behar dira, aurrekontuak ez baitira elastikoak. Zuek hautatu duzue Uztaritzeko herriarentzat milioi bat baino gehiagoko kostu ikaragarria izatea, mediatekarako. Beraz, beste zerbait bazter utzi behar da, nahi ala ez.

UB: Uztaritzeko haur eta gazte guziek kultura eskura ukan dezaten nahi dugu, hori da gure xedea.

Ensemble pour Ustaritz: Mediateka bat bada jada, oker ez bagaude.

UB: Araudiari jarraiki, biztanle kopuruaren arabera ttipiegia da.

Ensemble pour Ustaritz: Herriko kontseilua 18:00etan hastearen abantaila da ikustea ostiral arrats batez zer jendetza ikaragarria den liburutegian. Egia da mukurru betea dela.

UB: Hor, fede txarrekoa zara: kopuruak izigarri emendatu dira. Asteazken eta larunbat goizetan, betea da.

Ensemble pour Ustaritz: Horrela justifikatzen duzue, Baionak berdin egin zuen.

UB: Mediatekako erabiltzaile zenbakien ondorioz, egiazko beharra da. Zuk diozu ez dela jenderik, guk kontrakoa goraki erraten dugu. Memento batean gertatzen dena ez da beti bali.

Ensemble pour Ustaritz: Jada etorri gara beste egun batzuetan 18:00etan eta ez zen mukurru betea ere. Beharrezkoa bada, hobe. Guri iduri zaigu egungo Mediatekak beharrak asetzen zituela.

UB: Kultur gela ez da ahantzi behar. Bitxi da, alde batetik, ulertzen dugu ez duzuela proiektua

NOTES EXPLICATIVES DE SYNTHESE / ESPLIKAZIO LABURRAK

*UB : il ne faut pas oublier la salle culturelle ; C'est étrange, nous entendons que vous ne contestez pas le projet si ce n'est le coût et de l'autre côté, vous contestez le projet en disant qu'il n'y a pas assez d'usagers. Nous avons du mal à vous suivre.*

*Ensemble pour Ustaritz : Nous n'avons pas dit qu'il n'y avait pas de besoin, nous disons juste qu'il n'y a pas de surfréquentation. Ce ne sont que des impressions. Vos choix politiques se portent sur la Médiathèque. Regardons le budget investissement sur la commune ; quand on met un million d'euros sur la Médiathèque, on ne les met pas autre part. Quand on voit l'état des routes ! C'est un choix politique.*

*UB : Quelle route, nous aimerions que vous nous fassiez un état des routes non praticables ?*

*Ensemble pour Ustaritz : la route de devant chez moi, par exemple.*

*UB : Tu parles de devant ta porte ? Je pensais que nous devions discuter de la politique générale de la commune.*

*Ensemble pour Ustaritz : c'est pour donner un exemple. Nous avons 64 kilomètres de routes. On a fait des chicanes sur des routes qui va falloir refaire d'ici 2 ans. C'est extraordinaire. Nous ne comprenons pas que vous fassiez des chicanes sur de l'enrobé à refaire ou bien la route qui monte à Sokorrondo.*

*UB : la route menant à Sokorrondo a été refaite cette année. Tu dis que la totalité du budget investissement porte sur la Médiathèque. Ce n'est pas vrai, il y a le réaménagement d'Arrauntz, le rugby.*

*Ensemble pour Ustaritz : il y aurait le foot à refaire aussi.*

*UB : nous n'allons pas refaire l'histoire, vous savez très bien pourquoi ce terrain a été fait à cet endroit, pour lequel on s'est opposé. Le terrain a été refait il y a 7 ans et il faut le refaire.*

*Ensemble pour Ustaritz : Oui l'emplacement n'est pas bon mais il y a une usure logique du terrain qui pourrait être anticipée. La durée de vie d'un terrain stabilisé, c'est moins de 10 ans.*

*UB : faux, c'est 15 ans.*

*Ensemble pour Ustaritz : c'est faux, c'est quinze ans quand il y a des billes de caoutchouc et dans le cas présent, il n'y en a pas.*

*UB : et pourquoi, il n'y en a pas ? parce que le terrain se situe en zone inondable et qui s'est opposé au projet à l'époque, nous et nous étions les seuls.*

*zalantzan ematen, kostua baizik; eta bestetik, proiektua zalantzan ematen duzue, erranez ez dela erabiltzaile aski. Zaila zaigu segitzea.*

*Ensemble pour Ustaritz: Ez dugu erran ez zela beharrik, erraten dugu egungoa ez dela gain-erabilia. Irudipenak baizik ez dira. Zuen hautu politikoak Mediatekaren aldekoak izan dira. Begira diezaiogun herriko inbertsio aurrekontuari; Mediatekan milioi bat euro ematen bada, ez da beste nonbait ematen. Jakinez bideak nola ditugun! Hautu politikoa da.*

*UB: Zein bide? Baliatzeko egoeran ez diren bideak zerrenda ditzazuen nahi genuke.*

*Ensemble pour Ustaritz: Ene etxe aitzineko bidea, adibidez.*

*UB: Zein, zure ate aitzinekoa? Uste nuen herriko politika orokorra aipatu behar genuela.*

*Ensemble pour Ustaritz: Adibide bat emateko da. 64 kilometro bide ditugu. Hemendik 2 urtera berriz egin beharko diren bideetan xikanak egin ditugu. Harrigarria da. Ez dugu ulertzen nolaz egiten dituzuen xikanak berriz egin beharko den mundrunean, ez eta Sokorrondora igaten den bidean.*

*UB: Sokorrondora doan bidea aurten berregina izan da. Erraten duzu inbertsio aurrekontu osoa Mediatekara bideratu dugula. Ez da egia, Arruntzako berrantolaketa eta errugbia ere badira, adibidez.*

*Ensemble pour Ustaritz: Futbola ere berregin behar litzateke.*

*UB: Ez dugu historia berriz idatziko, badakizu arras ongi zergatik egin zen zelai hori leku horretan, eta badakizu kontra ginela. Zelaia duela 7 urte berregin zuten, eta berregin behar da.*

*Ensemble pour Ustaritz: Egia, kokapena ez da egokia, baina zelaiaren higadura normala ere aitzinetik pentsatu behar litzateke. Zelai egonkortu baten bizi iraupena 10 urte baino gutiagokoa da.*
*UB: Oker zara, 15 urtekoa da.*

*Ensemble pour Ustaritz: Oker zara, hamabost urte irauten du kautxu perlak direlarik; baina gure zelaian ez da horrelakorik.*

*UB: Zergatik ez da? Zelaia uholde arriskua duen eremuan eraiki zelako. Nor izan zen proiektuaren kontra, garaian? Bakarrak izan ginen.*

NOTES EXPLICATIVES DE SYNTHESE - ESPLIKAZIO LABURPENA

Ensemble pour Ustaritz : nous n'étions pas élus à l'époque. Par contre, nous étions contre, nous l'avons dénoncé dans le programme de 2014.

UB : nous ne sommes pas d'accord quand vous dites que nous manquons d'anticipation. La durée de vie d'un stabilisé est de 10ans, ici il a 7 ans.

Ensemble pour Ustaritz : vous avez été le voir le terrain, je vous invite à y aller.

UB : les équipes communales y sont toutes les semaines et nous engageons des réparations annuelles.

Ensemble pour Ustaritz : ce terrain est très abimé, il est surexploité ; il s'use plus vite que les autres. Il a 9 ans, il faudra le refaire à l'été 2026, pas le choix.

UB : ce terrain a été refait en 2017 suite aux inondations. Il est dans cet état car il a subi plusieurs inondations. Vous dites qu'il faut le refaire en 2026. Vous connaissez donc le budget 2026 ? Il y aura une nouvelle équipe municipale en 2026 qui prendra des décisions qu'elle choisira, des orientations politiques comme vous dites. Ce sera des choix à faire. Pourquoi présager de l'avenir. Peut-être que ce sera votre liste qui sera au pouvoir et ce sera à vous de décider si vous le faites ou pas.

Ensemble pour Ustaritz : ou votre liste.

UB : c'est vrai que le terrain synthétique est surexploité. Jusqu'à environ un an et demi, le terrain en herbe n'était pratiquement pas utilisé. Nous n'avons pas le choix à présent au vu du nombre d'adhérents et de licenciés. Il faudra refaire le synthétique effectivement et il faudra le refaire tous les 7 ou 8 ans. Cela représentera entre 700 000 et 800 000€ dans chaque mandature, et c'est un investissement à perte

Ensemble pour Ustaritz : malheureusement, nous sommes d'accord. Pour nous, le projet de la Médiathèque est surdimensionné, il coute trop cher alors qu'il convient de refaire le terrain synthétique. Ce sont des choix. Pour la Médiathèque, il faudra la faire vivre, la faire bien vivre, on ne doute pas qu'il y aura des gens pour la faire bien vivre mais quand les uztariztar vont être en fin 2026, ils auront bien conscience que c'est un beau joujou qui aura coûté plus de 4 millions. On aurait pu faire autrement ; en tout cas, nous aurions fait autrement. Nous étions pour l'agrandissement de la nouvelle médiathèque.

UB : une remarque, ça ne coûte pas 4 millions d'euros, il faut enlever le montant des subventions et concernant le surdimensionnement, deux arguments plaident pour l'inverse : la fréquentation et les normes de la DRAC et du département en

Ensemble pour Ustaritz: Garaian ez ginen hautetsi. Aldiz, kontra ginen, 2014ko programan salatu genuen.

UB: Erran duzu ez dugula aski aitzinetik pentsatzen; ez gara ados. Zelai egonkortu baten bizi iraupena 10 urtekoa da. Gureak 7 ditu.

Ensemble pour Ustaritz: Joan zara zelaia ikustera? Joan behar zenuke.

UB: Herriko lantaldeak aste guziz han dira eta urte guziz konponketak egiten ditugu.

Ensemble pour Ustaritz: Zelai hori biziki andeatua da, gehiegi baliatua da; besteak baino lasterrago higatzen da. 9 urte ditu. 2026ko udan berriz egin beharko da, nahi ala ez.

UB: Zelaia 2017an berregina izan zen, uholdeen ondotik. Uholdeak izan direlako dago egoera horretan. Erran duzu 2026an berregin beharko dela. Badakizu, beraz, zein den 2026ko aurrekontua? 2026an herriko etxean talde berri bat izanen da, berak hautatu erabakiak eta norabide politikoak hartuko ditu. Hautuak egin beharko dira. Ez du balio geroaz mintzatzea. Beharbada zure zerrenda izanen da herriko buru, eta zuek duzue erabaki beharko egin ala ez.

Ensemble pour Ustaritz: Beharbada zure zerrenda izanen da.

UB: Egia da zelai sintetikoa sobera baliatua dela. Duela urte eta erdi inguru arte, belarrezko zelaia ez zen kasik batere baliatzen. Orain, ez dugu hauturik, ikusiz zenbat kide eta lizentziadun diren. Sintetikoa berregin beharko da, eta 7 edo 8 urte guziz berriz egin beharko da. Agintaldi bakoitzari 700 000 eta 800 000€ artean gostako zaio, eta sosa galarazten duen inbertsioa da.

Ensemble pour Ustaritz: Zorigaitzez, ados gara. Gure ustez, Mediateka proiektua handiegia da, garestiegia da, jakinez zelai sintetikoa berregin behar dela. Hautuak dira. Mediatekari dagokionez, biziarazi beharko da, ontsa biziarazi, segur eta fida gara jendea izanen dela ontsa biziarazteko, baina uztariztarrak 2026 hondarrera iritsiko direlarik, argi ukanen dute jostailu ederrak 4 milioi baino gehiago balio izan duela. Beste molde batez egin genezakeen. Guk, hasteko, bestela eginen genukeen. Egungo Mediateka handitzearen alde ginen.

UB: Ohar bat: ez da 4 milioi euro gosta, dirulaguntzak kendu behar dira. Handiegia izateari dagokionez, bi argumentu ditugu horren kontra: jende kopurua eta DRACak eta Departamenduak irakurketa publikoaren arloan dituzten arauak.

NOTE EXPLICATIVE DE SYNTHESE / ESPLIKAZIO LABURRA

termes de lecture publique. Concernant l'agrandissement, nous vous rappelons qu'il n'y avait pas d'aide pour ce projet. Nous considérons que notre projet est un bon projet et qu'il est très bien financé à l'heure actuelle. Concernant le foot, il y a un synthétique et un terrain en gazon pour à peu près 260 uztariztar. La question est « est ce que les moyens que la commune met à disposition sont suffisants et faut 'il mettre des moyens pour les communs alentours, sachant que la subvention de centre bourg que nous avions autrefois a été réduite à zéro ».

Ensemble pour Ustaritz : avez-vous le même raisonnement pour tout ? Parce que c'est bien pour le foot mais est-ce que vous l'avez pour tout ?

UB : bien sûr

Ensemble pour Ustaritz : non c'est faux, on parle de l'ikastola ?

UB : nous ne payons le forfait communal que pour les enfants d'Ustaritz.

Ensemble pour Ustaritz : et le bâtiment ?

UB : il n'est pas communal, il appartient à la CAPB et c'est elle qui prend les travaux à sa charge.

Ensemble pour Ustaritz : nous nous sommes très satisfaits qu'il y ait 560 licenciés aux Labourdins et nous ne faisons pas de différence quant à leur provenance.

UB : il y a un enjeu financier. Il faut se poser la question en Conseil municipal. Si les labourdins nous disent, attention, nous sommes à 600 adhérents et il nous faut un 3ème terrain, Que faisons-nous ?

Ensemble pour Ustaritz : on les inscrit à la Médiathèque. A défaut d'avoir des Mbappé, nous aurons des agrégés et des normaliens.

Ensemble pour Ustaritz : Pouvons-nous scinder le délibéré en 2 ?

UB : vous êtes contra quoi alors ?

Ensemble pour Ustaritz : contre le financement de cette médiathèque

UB : Donc, vous êtes contre la réalisation de la Médiathèque ?

Ensemble pour Ustaritz : Encore une fois, vous nous caricaturez, on finira par être les vilains petits canards qui sont contre la culture, contre la Médiathèque. Dont acte. Nous ne sommes pas

Handitzeari dagokionez, oroitarazten dizuegu proiektu horretarako ez zela dirulaguntzarik. Gure ustez, gure proiektua proiektu ona da eta biziki ongi diruztatua da. Futbolari dagokionez, badira zelai sintetiko bat eta belarrezko bat, 260 uztariztar ingururentzat. Galdera hau da: "Herriak eskura ematen dituen bitartekoak aski ote dira, eta inguruko herrientzat bitartekoak eman behar ote dira, jakinez gure lehengo herri barnerako dirulaguntza zerora ttipitu dela.

